

## PAZIENTEENTZAKO ETA FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA

### 3.B UNITATEA - IGKU

Erizaintzako gainbegiralea: Javier Teruelo Prieto

1. Erizaintzako Unitate honetan, ebakuntza kirurgikoa egin behar zaien pazienteen harreraz eta ebakuntzarako prestakuntzaz arduratzen gara. Gainera, ebakuntzaren ondoren egunean bertan etxera itzuliko diren pazienteak ere zaintzen ditugu.  
Ospitaleratu beharra duten pazienteak dagokien solairura eramango dira (Kirurgia, O.R.L., Traumatologia, etab.), ebakuntzaren ondoren.
2. Unitate honetako ordutegia:
  - Astelehena: goizeko 8:00etatik 22:00ak arte.
  - Asteartetik ostegunera: goizeko 7:00etatik 22:00ak arte.
  - Ostirala: goizeko 7:00etatik 21:00ak arte.

Udako hilabetetan ordutegia 20:00etara bukatzen da.
3. Honako honen berri emango zaizu:
  - \* Zer teknika erabiliko ditugun eta zer-nolako zaintza egingo zaizun, bai eta Unitatean zenbat denbora egongo zaren ere, gutxi gorabehera.
  - \* Ebakuntza zer solairutan egingo den, eta ebakuntza amaitutakoan ABUra (Anestesia ondoko Bizkorketarako Unitatea) eramango zaitugun ala, zuzenean Unitate honetara itzuliko zaren.
4. Ebakuntzaren ondoren, Medikuek pazienteari eta familiartekoei edo hurbilekoei ebakuntzaren berri emango die. Informazioa Ebakuntza-gelen edo pazienteen gelen sarreran emango zaie.
5. Jo txirrina beharrezkoa duzun guztietan. Modu horretan, lana erraztuko diguzu; izan ere, erizaintzako kontrolera joaten bazara, beharbada, gure lana oztopatuko duzu.

6. Unitatean armairuak daude, ebakuntzaren ondoren ospitaleratu beharra duten pazienteek beren arropa eta oinetakoak gorde ditzaten, dagokien solairura eraman arte. Armairu horietan 0,50 zentimoko edo euro leko txanponak sartu behar dira; eta diru hori gero itzuliko zaizu. **EZ UTZI BALIOZKO OBJETUAK ARMAIRUAN, HAUETAKO bat (bitxiak, erlojua, dirua, mobila, ordenagailua...) izanez gero, lagunak edo familiakoak gorde dezala.**
7. Telebista ospitaleaz kanpoko zerbitzua denez, eta txip-txartelaz ibiltzen da, eta entzungailuak behar dira entzuteko. **Matxurarik bada edo premiarik baduzu, dei ezazu 1422 telefono-luzapenera.** Telebista eta telefonoa sistema integratua direnez, telebistak ezin dira deskonektatu, telefono-zerbitzua automatikoki itzaliko litzateke-eta.
8. Kafetegi-zerbitzua:
  - **Ordutegia:** 8:00etatik 22:00ak arte.
  - *Erdi-sotoko solairuan dago.*
  - Iggailuen atarian kafe- eta edari-makina dago.
9. **Ospitalizazio-ziurtagiria** Pazienteak Onartzeko Zerbitzuan jasotzen da, beheko solairuan; datu gehiago behar badituzu, galdetu Erizaintzako kontrolean, eta dagokizun idazkaritzarekin jarriko zaituzte harremanetan.

**PAZIENTEAREN ETA ERABILTZAILEAREN ARRETA ZERBITZUA (P.E.A.Z.)** Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara.